

EUSKAL UNIBERTSITATEA

Badakit, bai, idatzi nuen lehen zutabea, orain urte t'erdi, euskarari buruz eta EHUri buruz ez idazteko promesa-edo egin nuela. Euskal unibertsitateaz (EU) idaztea ez litzateke, nik uste, hitza urratzea, baina, dena den, EUri buruzko *iritziei* buruz idatziko dut; *Jakin* aldizkariak azken alean argiratutako 28 iritziei buruz, hain zuzen. Hasteko, eskatutakoak beste 12 ere ba omen ziren arren, ausentziek harritu egin naute: ez dago iparraldeko unibertsitarioen iritzirik, ez euskal ikasleenik, eta bereziki ikasleak izan dira azken 25 urteotan EUren aldarria bizirik gorde dutenak. Presentzia batzuk ere ez dira askorik ulertzen: nik behintzat 5 iritzi ED/ED kategorian —Ez Daki /(baina) Erantzuten Du— sartuko nituzke. Azter dezagun zer dioten gainerako 23ek.

Jakinen galderak 3 ziren, baina nik gauza bakar bati erreparatu diot: iritzi-emailea EUaren alde eta hori egiteko prest azaltzen den ala ez. Ez da lan erraza izan (ezin al du unibertsitarioak argiago hitz egin?), baina jarrera nagusi hauek aurkitu ditut. Harrigarria bada ere, 3k EU dagoeneko bideratzen hasia dela esaten dute: batek EHUn, bik MUNIn. Beste 3 iritzik EHUn campus autonomo gisa ikusten du EU. Horietako batek ez du, hala ere, egingarri ikusten, baina besteek bai (eta batek Bilbon hain zuzen!). Multzo garrantzitsu bat pesimistena da: 7 dira teoriarik EUren alde daudenak baina egungo kondizioak (politiko, juridikoak, sozialak...) direla, edo balizko EUri jartzen dizkietenak (publikotasuna, lurraldetasuna, gizarte onarpenik handienaren jabea ...), ez dute posible ikusten, edo ikusten uzten. EUri ezetza ematen diotenak 6 dira: EU nahitaez txikia eta eskasa litzatekeelako, edo *ghettoa* edo euskal gizartearen zatikatzaile. EUri baiezko biribil eta argia ematen diotenak 4 dira: egin daiteke, egina behar luke eta egin behar da, esaten dute. EU sortzeko oztipoak aztertzen dituzte eta aterabideak proposatu. Zein diren ikusita (Bakaikoa, Etxebarria, Jimeno eta Larrazabal), lanean hasteko prest daudela esango nuke. Eta, beste batzuen laguntzarekin batera, egiteko gai ere bai.